



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 18a

87. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00011. Foru-lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00018. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak industriaren arloan darabiltzan politika publikoei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00231. Galdera, iruzur fiskalari aurre egiteko ezarriko diren neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (6. or.).

—11-24/POR-00232. Galdera, Barañaingo Bigarren Hezkuntzako Alaitz institutuaren Batxilergoko 1. mailarako hezkuntza-eskaintzari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (6. or.).

—11-24/POR-00233. Galdera, Tuterako ospitaleko medikurik ezari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).

—11-24/POR-00234. Galdera, osasun-laguntzari dagokionez nafarren artean dagoen desberdinkeriar buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (7. or.).

—11-24/POR-00235. Galdera, Lizarrako ospitaleko profesionalen gabeziari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00236. Galdera, homosexualen aurka gertatu diren azken erasoei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00237. Galdera, lehen sektoreko belaunaldi-berritzeari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).

- 11-24/POR-00238. Galdera, itunpeko irakaskuntzako akordioa berritzeko prozesuan zehar sektoreko langileei emandako tratuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00240. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00239. Galdera, despopulazioari aurre egiteko foru-lege bat taxutu dadin Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00242. Galdera, baso-suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko neurriei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00241. Galdera, jakiteko ea Lurralde Kohesiorako kontseilariaren dimisioa edo kargu-uztea hausnartu den. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-000244. Galdera, zahar-etxeen Nafarroako lehen hitzarmenari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00243. Galdera, suteak itzaltzen lan egin eta lagundu duten boluntarioei buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00246. Galdera, jakiteko zenbat kostatuko zaigun nafarroi Kataluniaren finantzaketa berezia. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00245. Galdera, Irulegiko eskua Nafarroako Museora eramateari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00248. Galdera, legegintzaldiko lehen urteko balantzeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00247. Galdera, Gobernuari sostengua ematen dioten alderdiek monarkiaren kontra egindako ustelkeria-akusazioei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/POR-00250. Galdera, mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari laguntzeko neurriei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (15. or.).
- 11-23/POR-00249. Galdera, tentsiopeko merkatu-eremuak deklaratzeko arau- edo lege-aldaketei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00251. Galdera, lehen kontsultarako itxaron-zerrendei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (16. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00011. Foru-lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak, eta eskatu du irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru-lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko baita. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Ekonomia eta Ogasun Departamentuan eta Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoan, ikuskapen-alorreko langileek eta kudeaketa-alorreko ogasun-teknikariek soilik jasotzen dute gaur egun produktibitate-osagarria, xedetzat duena pizgarri bat ematea Ogasuneko langileek zerga-iruzurraren aurka egindako lanari; halatan, osagarririk gabe dihardute erakunde autonomoan lan egiten duten gainerako langileek, zeinek, beren egunero lanarekin, zerga-iruzurraren aurkako borrokan parte hartzen baitute, aipatu osagarria jadanik jasotzen dutenekin batera.

Diskriminazio-egoera hori ez da Zerga Administrazio Agentzian gertatzen, eta hori konpontzeko saioa egin zen Zerga-iruzurraren aurkako 2016-2019 Planean. Nafarroako Gobernuak hartutako konpromisoa izan zen 2018an zuzentzea egoera hori.

Epe hori amaitu zenetik sei urte igaro direnean, kontua da diskriminazio-egoerak bere horretan dirauela, eta kalte egiten diola Nafarroan zerga-iruzurraren aurka egiten den borrokaren eraginkortasunari.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren 40. artikulua 4. apartatua. Honako testu hau izanen du:

«4. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuari atxikita egonik ikuskapen-eginkizunak egiazki betetzen dituzten funtzionarioek zilegi izanen dute produktibitate-osagarri bat jasotzea, zeinarekin ordainduko baitira aipatu funtzionarioek beren lana egitean erdie-tsitako errendimendu berezia, aparteko jarduketa eta jarritako interes edo ekimena.

Osagarri horren zenbatekoak ezin izanen du kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren 100eko 55 gainditu.

Aurreko apartatuak aipatzen dituen baldintzei buruzko irizpena egin beharko da ikuskapen-eginkizunarekin zuzeneko zerikusia duten elementu objektiboen arabera, zeinak lotuta egonen baitira Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezarritako helburu eta emaitzak lortzeari.

Halaber, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitako Ogasuneko gainerako teknikariek eta Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoari atxikitako gainerako langileek zilegi izanen

dute produktibitate-osagarri hau jasotzea. Osagarria ezin izanen da kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren 100eko 15 baino gehiagokoa izan, eta lotuta egonen da aipatu Departamentuko kontseilariak ezartzen dituen helburu eta emaitzen lorpenari.

Produktibitate-osagarriagatik epe jakin batean jasotzen diren kopuruek ez dute eskubide eskuratuturik sortuko, eta ez dute efekturik izanen ondorengo denboraldietako balorazio edo irizpenei dagokienez».

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2025eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00018. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak industriaren arloan darabiltzan politika publikoei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako Gobernuak industriaren arloan darabiltzan politika publikoei buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen

Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Krisialdi klimatikoa, COVID-19ak eragindako atzeraldia, ondoren heldu zen Ukrainiaren inbasioa, hornidurarik eza... direla-eta, industria-eredu berri bat hartu behar izan dugu aintzat, gizartearen eskari berriei albait lasterren egokituko zaiena.

Planteamendu hori, zalantzarik gabe, funtsezkoa da gurea bezalako erkidego batean, non industriak BPGaren % 30 baino zertxobait gehiago hartzen baitu.

Horregatik, Nafarroako Gobernuaren industria-arloko politika publikoei buruzko interpelazio hau aurkezten dugu, eta eskatzen dugu Mikel Irujo Amezaga Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Legebiltzarren Osoko Bilkuran horri buruz informaz dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00231. Galdera, iruzur fiskalari aurre egiteko ezarriko diren neurriei buruzkoa*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, iruzur fiskalari aurre egiteko ezarriko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarriko du iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00232. Galdera, Barañaingo Bigarren Hezkuntzako Alaitz institutuaren Batxilergoko 1. mailarako hezkuntza-eskaintzari buruzkoa*ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Barañaingo Bigarren Hezkuntzako Alaitz institutuaren Batxilergoko 1. mailarako hezkuntza-eskaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Alaitz Bigarren Hezkuntzako Institutuko hezkuntza komunitatearen bidez jakin izan dugu Hezkuntza Departamentuaren asmoa dela 2024-2025 ikasurtean Batxilergoko 1. mailan Zientziak eta Teknologia eta Giza eta Gizarte Zientziak modalitateko talde bat kentzea. Horrek atsekabea eta ezi-negona sortu du bertako hezkuntza komunitatean.

Zer asmo zehatz du Hezkuntza Departamentuak Alaitz Institutuan, Batxilergoko 1. mailan

Zientziak eta Teknologia eta Giza eta Gizarte
Zientziak modalitatea eskaintzeari dagokionez?

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Foru Parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00233. Galdera, Tuterako ospitaleko medikurik ezari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako ospitaleko medikurik ezari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak noizko uste du konponduko duela Tuterako Reina Sofía ospitaleko medikurik ezaren arazoa?

Iruñean, 2024ko ekainaren 12

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00234. Galdera, osasun-laguntzari dagokionez nafarren artean dagoen desberdinkeriarri buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, osasun-laguntzari dagokionez nafarren artean dagoen desberdinkeriarri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari:

Nafarroako Gobernuko lehendakaria konprometitzen al da eskualdeko ospitaleetan jardutera osasun-laguntzari dagokionez nafarren artean dagoen desberdinkeria murrizteko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/POR-00235. Galdera, Lizarrako ospitaleko profesionalen gabeziari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Lizarrako ospitaleko profesionalen gabeziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak noizko uste du konponduko duela Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko zerbitzu guztiak irekita edukitzea eragozten dion profesional-faltaren arazoa?

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00236. Galdera, homosexualen aurka gertatu diren azken erasoiei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, homosexualen aurka gertatu diren azken erasoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ekainaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer arrazoi egon da hedabide bati eskatzeko ez dezala erasotzaileen jatorria aipatu homosexualen aurkako azken erasoetan?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00237. Galdera, lehen sektoreko belaunaldi-berritzeari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, lehen sektoreko belaunaldi-berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak zer neurri hartu nahi ditu Nafarroako lehen sektorean belaunaldi-berritzea errazteko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-24/POR-00238. Galdera, itunpeko irakaskuntzako akordioa berritzeko prozesuan zehar sektoreko langileei emandako tratuari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, itunpeko irakaskuntzako akordioa berritzeko prozesuan zehar sektoreko langileei emandako tratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako lehendakariak zer iritzi dio irakaskuntza itunduko akordioa berritzeko prozesuan sektoreko langileei emandako tratuari?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/POR-00239. Galdera, despopulazioari aurre egiteko foru-lege bat taxutu dadin Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, despopulazioari aurre egiteko foru-lege bat taxutu dadin Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu ditu Gobernuak despopulazioari aurre egiteko foru-lege bat taxutu dadin Kontuen Ganberak egindako gomendioa dela-eta?

Iruñean, 2024ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-24/POR-00240. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen aplikazioari buruzko ebaluazio-txostena ikusita,

Gobernuak zer balorazio egiten du txosten horri buruz?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/POR-00241. Galdera, jakiteko ea Lurralde Kohesiorako kontseilariaren dimisioa edo kargu-uztea hausnartu den

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, jakiteko ea Lurralde Kohesiorako kontseilariaren dimisioa edo kargu-uztea hausnartu den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuko eta beste erakunde batzuetako teknikariek detektatu dituzten irregulartasunak eta eskandaluak ikusita, hausnartu al duzu inoiz Lurralde Kohesiorako kontseilari zaren aldetik daukazun erantzukizunak uztea edo dimititzea?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/POR-00242. Galdera, baso-suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko neurriei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, baso-suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Heldu den udako kanpainari aurre egiteko ezinbestekoa da urteko sasoi horretan izan ohi diren baso-suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko neurriak prestatzea.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer neurri edo ekimen ezarri eta prestatuko ditu uda sasoi gertatzen diren baso-suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/POR-00243. Galdera, suteak itzaltzen lan egin eta lagundu duten boluntarioei buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, suteak itzaltzen lan egin eta lagundu duten boluntarioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Maite Esporrín Lan Heras andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, 2024ko ekainaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako Barne Zuzendaritza Nagusiak 370.000 euro eman dizkie suhiltzaile boluntarioen udal elkarte eta Babes Zibileko boluntarioen elkarteak dauzkaten udalei, bai eta Babes Zibileko jarduera espezifikoko boluntarioen entitateei.

Kontseilariak nola baloratzen du suteak itzaltzen lan egiten eta laguntzen duten boluntarioen esperientzia eta ekarpena?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-24/POR-000244. Galdera, zahar-etxeen Nafarroako lehen hitzarmenari buruzkoa

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, zahar-etxeen Nafarroako lehen hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari ekainaren 20ko Osoko Bilkuran (osteguna) erantzun dezan:

Duela zenbait egun jakin zen berriz hasi direla zahar-etxeen Nafarroako lehen hitzarmena onesteko elkarrizketak. Hori dela eta, honako hau galdetzen diogu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari: zer balorazio egiten du Gobernuak hitzarmen horren gaineko negoziazioen egoera dela-eta?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

11-24/POR-00245. Galdera, *Irulegiko eskua Nafarroako Museora eramateari buruzkoa*

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Irulegiko eskua Nafarroako Museora eramateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo-kontseilari Rebeca Esnaola Bermejok ekainaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer denbora-aurreikuspen darabil departamentuak Irulegiko eskua Nafarroako Museora eramateko, eta zer kontserbazio-neurri eta protokolo erabiliko dira pieza hori lekualdatzeko eta erakusteko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/POR-00246. Galdera, *jakiteko zenbat kostatuko zaigun nafarroi Kataluniaren finantzaketa berezia*

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zenbat kostatuko zaigun nafarroi Kataluniaren finantzaketa berezia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, zenbat kostatuko zaigu nafarroi Kataluniaren finantzaketa berezia?

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00247. Galdera, Gobernuari sostengua ematen dioten alderdiek monarkiaren kontra egindako ustelkeria-akusazioei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Gobernuari sostengua ematen dioten alderdiek monarkiaren kontra egindako ustelkeria-akusazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer iritzi die Gobernuari sostengua ematen dioten alderdiek monarkiaren kontra egindako ustelkeria-akusazioei?

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00248. Galdera, legegintzaldiko lehen urteko balantzeari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, legegintzaldiko lehen urteko balantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2024ko ekainaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legegintzaldia hasi eta urtebetera, zer balantze egiten duzu lehenengo urte honetaz?

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-23/POR-00249. Galdera, tentsiopeko merkatu-eremuak deklaratzeko arau- edo lege-aldaketei buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, tentsiopeko merkatu-eremuak deklaratzeko arau- edo lege-aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak 2024ko ekainaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Joan den ostiralean, Nafarroako Estatistika Institutuak Nafarroako 2022ko alokairu-prezioei buruzko datuak argitaratu zituen.

Emaitza horien balorazioarekin, noizko espero duzu egin ahal izatea kasuko arau- edo lege-aldaketak tentsiopeko merkatu-eremuak deklaratzeko, etxebizitzari buruzko estatuko legeak ezartzen duenaren arabera?

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-23/POR-00250. Galdera, mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari laguntzeko neurriei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari laguntzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ekainaren 20ko Osoko Bilkuran (osteguna) ahoz erantzun dezan:

Zenbait hilabete igaro dira lehen sektorearen krisian fokua jarri duten mobilizazioak hasi zirenetik. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak hainbat neurri jarri ditu abian nekazaritzari laguntzeko; horien artean, nabarmentzekoa da mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari zuzenduak, sektore hori bereziki ukiturik baitago Nafarroan.

Kontseilariaren ustez, zer eragin izanen dute neurri horiek sektore horretan?

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00251. Galdera, lehen kontsultarako itxaron-zerrendei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, lehen kontsultarako itxaron-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu lehen kontsultarako itxaron-zerrenden egungo egoeraz?

Iruñean, 2024ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez